

Ari gara

Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Lehenengo maila

Pello Mateos Yeste, Garbiñe Urreizti Lezertua



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua

Argitaratzen du: Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Euskara Zerbitzua

Egileak: Pello Mateos Yeste eta
Garbiñe Urreizti Lezertua

Marrazkiak: Regina Salcedo Irurzun

Diseinua: RBK, Diseinu eta Komunikazioa

Imprimatzen du: Litografia Ipar

L.G.:

ISBN.: 84-606-3140-0

Ari gara

Iaz, EOIDNA-ko Euskara Departamentua abian jarri zenean, gure ikastetxe kolaboratzaileei ohikoa (maila bakoitzaren kurrikulua, ebaluazio irizpideak eta azterketak) eskaintzeaz gainera argi ikusi genuen Bigarren Hezkuntzako irakasleei zertxobait gehiago eskaini behar zitzaieela: guk proposatutako kurrikulua ikasgeletan aurrera eramaten lagunduko zion ikasmaterial xorta xume bat, alegia.

Ikasmaterial hau sortzera bultzatu gintuen arrazoia kurrikuluaren beraren izaeran aurkitu behar dugu. Izan ere, EOIDNA-ko A ereduko 1.mailari zegokion kurrikulua prestatzerako orduan, HABE-k plazaratu zuena hartu genuen oinarritzat. HABE-ko kurrikuluak zerbait ona badu, eta alderdi on asko ditu, ikaslea komunikazio eraginkor eta praktikora bultzatzeko asmoa da. Horixe nahi genuen, ohiko irakasbide memoristiko eta gramatikal horretatik aldentuta, Bigarren Hezkuntzako A eredu-ko gure ikasleei komunikaziorako bide ematea.

Ari gara materialaren helburua ikasgelan lau trebetasunak lantzea da. Lau trebetasunetatik mintzamina izan da orain arte gelan lantzeko aukerarik izan ez duena, ohitura falta batetik, eta gelako ikasle kopurua bestetik, izan dira gure ustez trebetasun hau ez lantzearen arrazoi nagusiak. Guk eskaini dizuegun materialean, beraz, beste trebetasunen artean mintzamenari ere lekutxo bat egi-tea proposatu dizuegu.

Nozio komunikatiboa oinarri delarik, esaldiak egituratu ahal izateko errekurtsu gramatikalak gelako irakasleak zabaldu beharko ditu, betiere material osagarria baita guk sortu duguna. Gure liburu honetan ez dira betiko eta beharrezkoak diren azalpen gramatikalak aurkituko, gure programazioan mailaka definituak agertzen direnak, hauek gelako irakasleak inork baino hobeto azalduko dituela uste dugu.

Ari gara ikasmateriala bi zatitan aurkeztu nahi izan dugu: irakaslearen liburua eta ikasleena. Lehenengoan irakasleek baliagarriak izan dakizkieteen informazioak aurkituko dituzte, hala nola jarduera bakoitzaren euskarriak (testu-mota, kontestuko ezaugarriak, adierazpide linguistikoak...), prozedura, soluzioak... Bigarreanean ikasleek egin beharko dituzten zeregin guztiak, modu erakar-garrian aurkeztuak, biltzen dira.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi genizkieke Nafarroako Gobernuko Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Teknologia Berrien Zerbitzuari eta bereziki Euskara Zerbitzuari, hauen laguntzarik gabe lantxo honek ez baitzuen argia ikusi izango. Era berean, gure eskerrik beroena Nafarroako Gobernuko Ikasliburu eta Materialen Unitate Teknikoari argitalpen prozesu tekniko guztia bere gain hartu duelako. Azkenik ez genituzke aipatu gabe utzi nahi izango iaz EOIDNA-ren proiektuan A ereduan aritu ziren irakasle guztiak, haien ekarpena balio handikoa izan baita. Horiei ere eskerrak.

Aurkibidea

1. Datu pertsonalak	7
2. Etxebizitza	19
3. Animaliak	33
4. Ogibidea	43

1

Datu pertsonalak



Amaiaren familia

1.

Hau da Amaia!

Jarduera



Entzumena



Amaiak bere familia aurkeztuko dizu baina ez dizkizu haien izenak emango. Entzun eta asmatu zein diren bere familiako senideen izenak.



2.A


Jarduera

Nire familiaren berri



Mintzamena

Binaka jarri eta aurkeztu **AHOZ** zure familia ondokoari. Zure senideen jatorria, adina, bizilekua eta lanbidea ere aipatu ahal dituzu. Zure ondokoak bere marrazkian zure argazki-albuma beteko du. Bukatutakoan pasatu zure albuma ondokoari, zuk hartu berea eta konprobatu ea ongi ulertu duzuen.




Ondokoaren familia jarri

2.B

Jarduera

Gezurrak esaten



Idazmena

Orain ezagutzen duzu zure ondokoaren familia. Idatziz deskribatu zure ondokoak kontatu dizuna baina **GEZUR** bat sartu behar duzu. Ongi izkutatu gezurra! Gero, utzi zure testua ondokoari gezur hori asmatzeko. Lehen ongi ulertu badiozu eta bere familia ongi deskribatu baduzu, erraz asmatuko du!

3.


Jarduera

Esan du... Esan dit...



Mintzamena

Familiarekin jarraituz... aldatu klasean orain arte izan duzun bikotea, beste batekin elkartu eta AHOZ aurkeztu ikaskide berriari aurreko ikaskidearen familia!



Irunek esan du bere aita Luis dela eta bere ama botikaria dela

Anek esan du bere aitona Donostiakoa dela eta amona Iruñekoa dela



4. Jilda Ahizpak



Irakurmena



Binaka jarri eta komiki osoa ulertzen saiatuko zarete baina A ikasleak komikiaren HASIERA du eta B ikasleak BUKAERA. Beraz, ELKARRI KONTATU!

A ikaslea



Mintzamina

Hurrengo zatia komikiaren **HASIERA DA**. Irakurri, ulertu eta B ikasleari kontatu:



Kili-Kili aldizkaria

4. Jarduera

Jilda Ahizpak



Irakurmena




B ikaslea

Binaka jarri eta komiki osoa ulertzen saiatuko zarete baina A ikasleak komikiaren HASIERA du eta B ikasleak BUKAERA. Beraz, irakurri eta ELKARRI KONTATU!

Hurrengo zatia komikiaren **BUKAERA DA**. Irakurri, ulertu eta A ikasleari kontatu:



Mintzarena



Kili-Kili aldizkaria

N.A.

Parekatu esaldiak!

NOZIOAK

Amaiak oporretan udalekuetara joateko paper batzuk bete behar izan ditu. Datu guztiak jarri eta gero bere txakurrak, Tinkok, paper guztiak txikitu dizkio.

Amaiaren galdetegia berregiteko parekatu esaldiak eta galde-erantzunak:



Parekatu ongi!

Idatzi zein den ordena

1. IZEN DEITURAK

2. AITAREN IZENA

3. AMAREN IZENA

4. NON BIZI ZARA?

5. ZEIN DA ZURE
HELBIDEA?

6. ZENBAT URTE
DITUZU?

7. ZENBAT ANAI-
ARREBA DITUZU?

8. ZEIN DA ZURE
AMAREN
LANBIDEA?

9. ZEIN DA ZURE
AITAREN
LANBIDEA?

Ama medikua da

Nik 14 urte ditut

Aita irakaslea da

Nire aita
Patxi Ugarte da

Bi anaia ditut

Iruñean bizi naiz

Amaia Ugarte Lanz

Nire ama Mertxe
Lanz da

Tafalla Kalea 2, 5.
pisua, eskuina.

N.B.

Nor da bestea?

NOZIOAK

IRAKURRI ONGI!

Kalean lagun batekin topo egiten baduzu eta lagun hau beste pertsona batekin badoa, lagunak bestea aurkeztuko dizu.

Kaixo Imanol, zer moduz?

Kaixo Miren, urte askotarako!

Kaixo Javier, hau Miren da, Donostiako nire laguna



Azkenean Amaiak bere paperak udalekuetako bulegoan entregatu ditu. Etxerako bidean Mikel eta Elenarekin egin du topo. Mikel Amaiaren aspaldiko laguna da eta ez du aspaldian ikusi.

ORAIN OSATU ZUK HAUEN ARTEKO ELKARRIZKETA

1. Kaixo aspaldiko!

3. Ni ongi eta zu?

6.

8.



2.

4.

5. Hau nire laguna da, Elena.

7. Bueno Amaia, pozten naiz zu ikusteaz, egongo gara beste batean. Ongi segi!

Arian, arian edo zer zulatzen da

Egin dezagun gogoeta txiki bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hirunaka antzeko memorizazioa izan duzuen.

**ZER
IKASI
DUT?**


Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak

2 Etxebizitza

Etxe bila



1.A


Jarduera

Nolako etxea nahi duzu?



Mintzamina

Zu non bizi zara: pisu batean, txalet batean, hirian, herrian?
Zure etxebizitza gustatzen zaizu? Hitz egin zure bikotearekin.



1.B

Jarduera

Begoña eta Beñat, ikasgai honetako protagonistak, etxebizitzei buruz ere ari dira hizketan.
Entzun nahi duzu zertaz ari diren? Erne orduan!



Entzumena



Aukeratu erantzun egokia

1 Beñat eta Begoña non daude orain lanean?

- Donostian
- Bilbon
- Iruñean

2 Hemendik aurrera zer egin nahi dute?

- Dauden lekuan geratu
- Beste leku batera joan

3 Etxebizitzarik erosi nahi al dute?

- Bai
- Ez, alokatu nahi dute

4 Txaleta ala atikoa?

- Txaleta
- Atikoa



2.A

Jarduera

Hitzak gogoratzuz



Begoña eta Beñaten arteko elkarrizketan etxebizitzaren inguruko hitzak entzun dituzu: **txaleta, pisua, lorategia, belarra, loreak, terraza...** Jarri hitz hauek dagozkien marrazkien azpian.



.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



.....

Lexikoa

2.B Segi gogoratzen

Jarduera

Gehiago ere badira: logela, sukaldea, komuna, terraza, egongela, eta dakizkizun guztiak. Jarri hitz hauek dagozkien lekuan.



N

Zer iruditzen zaizu, Begoña?

NOZIOAK

1 Gai bati buruz askotan jakin nahi dugu besteek zer pentsatzen duten eta orduan **iritzia eskatzen** diegu.

Begoña eta Beñaten arteko elkarrizketan Beñatek nolako etxea nahi duen kontatu dio Begoñari. Begira nola eskatu dion iritzia:

IRAKURRI ONGI!

GALDERA

Zer diozu, Begoña, zer iruditzen zaizu?



ERANTZUNA

- Ongi
- Gaizki
- Esplikazioa

Eta inbiliarariara joateko, honela:

GALDERA

Zer moduz asteazkenean?



ERANTZUNA

- Ongi, ederki
- Gaizki



2 Beste aldetik oso arrunta da besteak ideia edo plan batekin konforme dauden ala ez jakitea.

Beñatek nola galdetu dio Begoñari ea **konforme** dagoen?

GALDERA

Ados (zaude)?



ERANTZUNA

- + Ados (nago) / Konforme (nago)
- Ez nago (batere) ados / konforme



3.A

Nahas-mahas

Jarduera



Entzumena

Beñaten eta Begoñaren arteko beste elkarrizketa bat entzun duzu. Oraingoan inmobiliariara joan dira.

Hurrengo nahas-mahas joku-an ea aurkitzen dituzun gai honekin zerikusirik duten aditz batzuk (4) eta adjetibo hauen antonimoak: txikia, egokia, garestia.

Gogoratu hitzak ezkerretik eskuinera, eskuinetik ezkerrera, zeharka, aldrebes, goitik behera eta behetik gora egoten ahal direla!

E	T	I	P	A	H	K	N	U	I	P	L
R	E	F	I	U	L	A	E	D	F	G	T
R	S	R	U	L	P	O	B	T	R	O	L
E	R	O	S	I	S	H	K	T	I	L	P
N	Z	M	L	P	I	E	S	A	H	J	G
T	B	A	S	E	R	E	T	A	T	M	E
A	K	Z	K	I	O	E	R	U	T	U	A
N	J	A	S	F	H	G	I	M	L	U	U
H	A	N	D	I	A	B	Z	E	O	D	K
A	E	Z	U	R	I	O	L	R	R	L	H
R	X	D	E	S	E	G	O	K	I	A	L
T	Z	A	R	E	T	U	K	E	J	S	B
U	S	R	T	U	I	O	P	A	S	Z	Z

3.B

Baietz dena ulertu!

Jarduera

Beñat eta Begoña inmobiliarian izan dira. Ulertu duzu haien elkarrizketa? Egin dezagun proba.

BAI

EZ

1. Azkenean

- | | | | |
|---|--|--|--|
| 1 | Etxe bat errentan hartuko dute. | | |
| 2 | Txalet bat alokatuko dute. | | |
| 3 | Pisu bat, logela batekoa, erosiko dute. | | |
| 4 | Bi logelako eta terrazarik gabeko pisu bat erosiko dute. | | |
| 5 | Komun bakarra duen atiko bat erosiko dute. | | |
| 6 | Bi komun eta bi logela dituen atiko bat erosiko dute. | | |

2. Prezioarekin zer gertatzen da?

- | | | | |
|---|--|--|--|
| 1 | Ezin da aldatu, fijo delako. | | |
| 2 | Begoñak eta Beñatek ez dela batere garestia pentsatzen dute. | | |
| 3 | Begoñak eta Beñatek oso merkea dela pentsatzen dute. | | |
| 4 | Negoziatzen ahal da, fijo ez delako. | | |

NOZIOAK

N

Egun on! Sartzen ahal gara?

1 Begoña eta Beñat inmobiliariara joan dira. Sartu baino lehen, atea jo eta **sartzeko baimena** eskatu dute, honela:



GALDERA
 - Sartzen ahal gara? (GU)
 - Sar gaitezke? (GU)

ERANTZUNA
 - Bai, bai, sartu.
 - Itxoin / Egon pixka bat

Erantzuna ezezkoa denean, esplikazioren bat ematen da.

ESPLIKAZIOA
 - Orain lanpeturik nago
 - Orain lan asko dut

eta
 - ez dut zurekin egoteko denborarik
 - ezin zaitu(zte)t atenditu

2 Inmobiliarian sartu eta gero, langilea agurtu dute:



AGURRA(FORMALA)
 - Egun on!
 - Arratsalde on!
 - Gabon!

- Baita zuei/zuri ere!

Dena den, agur formal honetaz aparte, bada beste bat lagunekin erabil-tzen duguna:

Kaixo, neskak/adiskideok/mutilak, zer moduz?

Eta honela erantzuten da:

+ Oso ongi eta zu/zuek?
 ± Hainbestean. Bagabiltza behintzat!
 ± Ongi esan beharko!
 - (Oso) gaizki

4.

Jarduera

“Merke” inmobiliaria, bai esan?



Eta ikasgelan inmobiliaria bat antolatzen badugu?

Mintzamena

A fitxa

Zuek etxebizitza bat **erosi** nahi duzue. Hitz egin zuen artean eta erabaki nolako etxea erosi nahi duzuen.

- pisua, txaleta...
- handia, txikia, zenbat metrokoa...
- bi logelakoa, logela bakarrekoa...
- zenbat komun?
- terrazarekin, terrazarik gabe, balkoiarekin...
- zenbat diru gastatu nahi duzue?
- ...

Ados jarri eta gero, **idatzi** etxebizitza horren deskripzioa. Orain prest zaudete inmobiliariara joateko. Zorte on!

B fitxa

Zuek etxebizitza bat **alokatu** nahi duzue. Hitz egin zuen artean eta erabaki nolako etxea alokatu nahi duzuen.

- pisua, txaleta...
- handia, txikia, zenbat metrokoa...
- bi logelakoa, logela bakarrekoa...
- zenbat komun?
- terrazarekin, terrazarik gabe, balkoiarekin...
- zenbat gastatu nahi duzue hilabetero?
- ...

Ados jarri eta gero, **idatzi** etxebizitza horren deskripzioa. Orain prest zaudete inmobiliariara joateko. Zorte on!



Idazmena



C fitxa

Zu inmobiliariako langilea zara. Etxebizitzak saldu edo alokatu behar dituzu. Horretarako hartu katalogoa, falta diren datuak (prezioa...) osatu eta, bezeroen gustuen arabera, zure lana egin.

ALDE ZAHARRA

Kanpora ematen duen atikoa. 61 m². Igogailua. Eraberritze-ko dago.

ITURRAMA

95 m². Egongela, 3 logela, komun bat eta sukaldea. Eraberritua. Kanpora ematen du.

MENDEBALDEA

70 m². Egongela, 2 logela, bi komun eta sukaldea. Eraberritua. Patio aldera ematen du.

BARAÑAIN

65 m². Egongela, 2 logela, komuna eta sukaldea.

II. ZABALGUNEA

70 m². Egongela, 3 logela, komuna eta sukaldea. Eraberritua. Kanpora ematen du.

ETXABAKOITZ

50 m². Egongela handia, logela bat, komuna eta sukaldea.

ALDE ZAHARRA

Apartamentu txikia. Estafeta kalean. Bi logela, sukaldea eta komuna. Berriki eraberritua. 45 m²

ITURRAMA

150 m². Egongela handia, 4 logela, 3 komun. Gela guztiek kanpora ematen dute.

5.

Jarduera


Txalet bat izango banu...




Mintzamina

Txalet bateko planoak duzue oraingoan. Txalet horrek bi solairu ditu. Bikotearekin jarri eta bakoitzak solairu bateko planoak hartu behar du. Planoan dagoena, gela guztiak eta non dauden, deskribatu behar diozu ikaskideari. **Baina kontuz, besteak ezin du zure planoak ikusi.**

1





Arian, arian edo zer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Egin dezagun gogoeta txiki bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hirunaka antzeko memorizazioa izan duzuen.

Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak

3

Animaliak



Kurrin-kurrin

1. Atarikoa

Jarduera



Mintzamena

Erantzun galderei:

- Animaliak gustatzen zaizkizu?
- Zuk baduzu animaliarik etxean? Hala bada, zein? Nork zaintzen ditu, zuk zeuk, amak...? Animaliarik ez baduzu, zergatik ez?
- Jendeak zertarako ditu animaliarik etxean, konpainia egiteko bakarrik?
- Zein dira animaliarik egokienak pisu batean izateko?

2.A Ezetz asmatu!

Jarduera



Entzumena

Animalia batzuen deskribapenak entzun eta gero, beheko irudien artean aukeratu. Ezetz asmatu entzun dituzun animalien izenak!

1

2

3

4

5

6



2.B

Jarduera

Irakurri eta pentsatu



Irakurmena

Sei animaliaren deskribapenak entzun dituzu.
Lotu esaldiak entzun dituzun animalien izenekin.

ESALDIAK


ANIMALIAK

- | | |
|---|--|
| <ol style="list-style-type: none"> 1 Gorputza txikia du, oso arina eta izutia da. 2 Baserrietako ikuiluetan bizi da eta buztan luzea du. 3 Oso usain txarra botatzen du. 4 Buruz behera lo egiten du sapatik zintzilik. 5 Hortz eta hagin zorrotzak ditu. 6 Ia-ia ez du ezer ikusten. 7 Begi handiak eta irtenak ditu. 8 Zuhaitz artean bizi da eta buztan iletsua du. 9 Leku ilunetan bizi da. 10 Baserrietako ikuiluetan bizi da eta oso buztan txikia du. 11 Etxe-aberea da eta belarri handiak ditu. 12 Mingain luze-luzea du. 13 Hego beltz handiak ditu. 14 Lokatzetan gustura egoten da. 15 Lehorrean bizi da, baina igerilari ona eta isila da. 16 Oso txikia eta oso itsusia da. 17 Larrua oso polita du. 18 Errege bat bezala bizi da urtean zehar. | <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> |
|---|--|

2.C

Jarduera

Gogoan hartu!



Lexikoa

1 Kasetean hitz hauek entzun dituzu: **basapiztia** eta **etxe-aberea**. **Bigarren B** jardueraren animalia-zerrenda horretatik zein dira etxe-abereak?

.....

2 Zein dira bai uretan bai lehorrean bizi diren animaliak? Eta zein dira lehorrean bakarrik bizi direnak?

URETAN

LEHORREAN

- | | |
|---|---|
| <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> | <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> |
|---|---|

NOZIOAK

Aizu, baduzu astoaren burua?

Hurrengo jokuari ekin baino lehen, beste bati zerbait nola eskatu behar zaion ikasiko dugu.

Zerbait eskatzeko...

IRAKURRI ONGI!

1 BESTEAREN ARRETA ERAKARRI

- Aizu, (Mikel)
- Aizue, (lagunok)

2

GALDERA

- (Baduzu astoaren burua?)
- (Emango didazu astoaren burua?)

GALDERA

- (Badituzu astoaren aurreko hankak?)
- (Emango dizkidazu astoaren aurreko hankak?)

3

ERANTZUNA

- (Bai, Badut, tori)
- (Bai, tori)

ERANTZUNA

- (Bai, baditut, tori)
- (Bai, tori)

duzu astoaren burua?

LABURPENA

- Aizu, baduzu astoaren burua?
- Aizu, emango didazu astoaren burua?

- Bai, badut, tori.
- Bai, tori.



3.

Animaliak osatu

Jarduera



Mintzamena



1 Hemen dituzu entzungaian agertu diren animalia horien irudiak. Erreparatu animalien gorputz-atalei: burua, gorputza, aurreko hankak, atzekoak, buztana, ezkerreko hegoa, eskuinekoa...

2 Orain sei animalietatik hiruren gorputz-atalak dituzu zatika karta batzuen modura. Osatu irakasleak esango dizun eran.

4.

Jarduera


Egun bat zoologikoan



Idazmena

Zoologiko bat zer den jakingo duzu, ezta? Inoiz izan al zara? Imajinatu lagun bat duzula inoiz zoologiko batean izan ez dena. Lagun horrek noizbait entzun du zoologikoan animaliak egoten direla, baina xehetasun gehiago entzun nahi ditu. **Zergatik ez dizkiozu ematen?**

Kontatu idatziz zein zoologikotan izan zaren, zein animalia ikusi dituzun, nolakoak diren...



5.A

Jarduera

Txerri bakoitzari bere sanmartina ailegutzen zaio




Irakurmena

Txerria agertu zaigu ikastunitate honen hasieratik. Badakizu Euskal Herrian txerria oso animalia garrantzitsua izan dela betidanik eta oraindik ere badela? Irakurri pasarte honetan zer kontaktzen den.

“Nekazari giroan eta leku askotan ohitura da zerria hiltzeko eguna iristen denean, festa edo erdi festa egitea. Festa hau, Bizkaian behintzat, txarriboda izenarekin ezagutzen da. Ohitura zaharra da Euskal Herrian, egun berean, odolkiak eta beste zenbait zerriki zati auzoan banatzea. Hor dugu lehengo esaera zaharra: “odolkiak ordainetan”. Eta izan ere, ordainaren pozez, ez da izaten lan astuna besteri zerri handiaren zatitxoren bat banatzea”.

Till Eulenspiegel



5.B

Jarduera

Zuk baduzu honen berririk? Noizbait entzun diezu kontu hau gurasoei edo beste norbaiti? Herrikoa baldin bazara, txerri-hilketa egiten dute? Zer giro izaten da festa horretan?...



Mintzamena

Hitz egin bikoteka gai honetaz. Gero hitz egin duzuen klase osoaren aurrean kontatu.

Arian, arian edo zer zulatzen da

Egin dezagun gogoeta pixka bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hirunaka antzeko memorizazioa izan duzuen.

ZER
IKASI
DUT?

Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak

4 Ogibidea



Beti lanean

1.

Jarduera

Oraingoan behintzat jolasten!



Mintzamena

Hirunaka jolastuko gara.
Bakoitzak bere koadroan lanbide
baten izena idatziko du:




Eta ezkutatu ongi!

Orain lanbide hau definitzen duten 3 esaldi idatzi hurrengo koadroan:

1.
2.
3.

Jarraian **txapelketa** antolatuko dugu. Hirunakako taldean txandaka eta ozenki irakurri bakoitzaren definizioak. Lanbide bakoitzak **puntu bat balio du**. Azkarren erantzun eta asmatzen duenak eramango du puntua eta **bi puntu lortzen dituenak IRABAZIKO** du.



Bukatu eta gero konprobatu elkarren koadrotxoak!

2.

Jarduera

Dena langileak...

Segidan dagoen hitz multzoan aurkitu hurrengo irudiei dagozkien izenak eta idatzi ondoko koadrotxoetan.

KOADROAK BETE


Lexikoa

Eraman irudietara hurrengo hitzak

**dantzari
aktore
ehiztari
nekazari
suhiltzaile
apaiz
udaltzaina**

**musikari
dentista
taxi-gidaria
futbolari
postari
bulegari**

**okin
sukaldari
mediku
ile-apaintzaile
arrantzale
pilotu
irakasle**





Zein da irudirik gabe geratu den hitza?



3.

Jarduera

Lanbidea aukeratzeko



Mintzamina

Erantzun hurrengo galderi:

Zein da gehien gustatzen zaizun lanbidea?



Zein da gutxien gustatzen zaizun lanbidea?



ZERRENDATU ALDE ONAK

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

ZERRENDATU ALDE TXARRAK

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Bukatutakoan binaka jarri eta azaldu AHOZ zure koadroan dagoen informazioa zure ondokoari.

4.A

Ezcutaketan

Jarduera



Entzumena

Jarraian hiru istoriotxo entzungo dituzu. Istoriotxo bakoitzean lanbide bat ezcutatu dugu. Entzun ongi eta ea asmatzen duzun zein den pertsonaia bakoitzaren lanbidea eta bete beheko koadrotxoak:

ZER DA JON?

- okina
- harakina
- iturgina



ZER DA JOKIN?

- kamioilaria
- taxi-gidaria
- dantzaria



ZER DA NEKANE?

- kantaria
- medikua
- irakaslea



4.B

Berriro txapelketara!

Jarduera



Idazmena

Berriro hirunaka jarrita taldeko partaide bakoitzak paper bat hartu eta **lanbide baten deskribapena egingo du**. Zintan bezala, deskribapena prestatu baina lanbidearen izena ezcutatu egingo duzu.

Taldeko hirurok bukatutakoan, irakasleak emango dizuen **sobreak sartu, eman sobrea irakasleari eta itxoin klaseko guztiok bukatu arte**.



Mintzamena

Jarraian **txapelketa** antolatuko dugu. Irakasleak bildu dituen sobreak berriro banatuko ditu baina talde bakoitzari berea ez dena emango dio. Talde bakoitzak hiru idazlanak irakurri eta zein hiru lanbide diren asmatu beharko ditu.

Irakasleak **BAT, BI ETA HIRU** esandakoan, sobreak ireki eta hasiko da txapelketa.



5.

“Astoa eta lau jakintsuak”

Jarduera



Irakurmena

Irakurri eta ulertu hurrengo ipuina:

“Baserri batean lau jakintsu bildu dira. Lau aldetakoak dira jakintsuok: ingelesa, espainola, frantsesa eta portugesa.

Lau jakintsuak eguraldiari buruz hasi dira hitz egiten. Hizketaldi luze baten ondoren, azkenik iritzi batera etorri dira laurak. Haien ustez bi hilabetetan ez du euririk egingo.

Jakintsu batek, etxeko-andrea ura hartzeko ontzi batekin ikusi du, eta esan dio:

- Zertan ari zara etxekoandre?
- Gaur euria egingo du eta teilatuko ura hartu behar dut.
- Nola dakizu euria egingo duela? galdetu dio berriro jakintsuak.
- Guk asto bat dugu ikuiluan eta asto honek belarriei pli pla, alde batera eta bestera eragiten dienean, egun hartan euria egingo duela seguru da. Lehen mugitu ditu belarriak, eta gaur euria egingo duela esan nahi du.
- Bai zera! Gaur ez du euririk egingo. Hemen gaude lau jakintsu eta gure iritziz bi hilabetez ez du euria egingo.
- Nahi duzuen sinetsi zuek. Nik astoari egingo diot kasu. Apustu ere egin dute biek...”

Euskal Herriko Ipuinak. Txantxangorriak.



Ikusiko duzunez bukatu gabe dago.

Asmaiozu bukaera!



Idazmena

.....

.....

.....

.....

.....

Irakurri segidan dituzun bi bukaerak:

1

Egun osoan euriaren zain egon eta gero tantarik ez.

Hau ikusi duenean, apustu egin duen jakintsuak, etxeoandrearengana joan eta esan dio:

– Ederra ziria sartu didazuna etxeoandre!

– Nik ziria sartu? Zuk bai niri! Jakintsua zarela esan eta egun osoan asto baten belarrien mugimenduek esango dutenaren zain!



2



Handik ordu bi baino lehen izugarritzko zaparrada bota du.

Hau ikusi duenean, apustu egin duen jakintsuak, bere lagunengana joan eta esan die:

– Lagunak, goazen bakoitza bere herri-
ra, ikuiluko astoak ere guk baino gehia-
go daki eta.

Nire ustez benetako bukaera hau da:

Hirunaka ados jarri eta azaldu zuen proposamena eta zergatia talde osoan. Talde guztiek beraien ustea azal dutakoan, irakasleak benetakoa zein den esango dizue.

6.

Jarduera

Kantatuko dugu?




Entzumena

“**Paristik natorren**” kanta kantatu behar duzue, oraingoan gure langilea artista da.

Talde osoak hartu behar du parte. Hirunaka (edo binaka) instrumentua aukeratu, prestatu zure taldeari dago-kion zatitxoa eta zati hori, hirurok (edo biok) bakarrik kantatu beharko duzue.

Kanta ez baduzue ezagutzen, agian norbaitek edo irakasleak ezagutuko du. Beraz, lehengo lortu kanta, ezagutu eta kantatu.

Ahal bada grabatu eta klasean entzun eta baloratu zer moduz ateratu den.



N.A

Elkarrizketan

NOZIOAK

Lagunen etxera bazkaltzeko orduan joaten bazara horrela agurtu beharko duzu eta agian gonbidatuko zaituzte:

Kaixo eguerdion!
Bazkaltzen ari zarete?
On egin!

Ez, estimatua dago baina berehala joan behar dut

Eguerdion eta eskerririk asko!
Eseri eta jan gurekin...



Orain esapide egokia aukeratu eta osatu elkarrizketa:

- aspaldiko
- herriko
- betiko

- agur
- mesedez
- estimatua dago

- ikusiko dugu
- on egin
- barkatu

Joxe zerbitzaria da Iruñeko jatetxe batean. Bat-batean Iñaki eta bere aita, Julio, sartu dira:

Joxe: Kaixo Iñaki!

Iñaki: Kaixo _____, hemen lan egiten duzu!

Joxe: Bai, hilabete daramat hemen lanean.

Iñaki: Ba bazkaltzera etorri gara baina ez dakit lekurik izango dugun, mahai guztiak beteta ikusten ditut.

Joxe: Ez estutu, txoko bat aurkituko dizuet. Zerbait hartu nahi duzue jatera eseri baino lehen?

Julio: Ez, _____ baina arin jan beharko dugu.

Iñaki: Bale ba, eseri eta _____

Joxe: Eskerririk asko. Egongo gara.

N.B

Dударик gabe

Norbaiti galderaren bat egiten badiozu eta erantzuna (baiezkoa) oso argi baldin badago, horrela indartuko dugu:



Jakina, ni beti nago prest Donostiara joateko

Bihar, egun pasa Donostiara joango gara, ba al zatoz gurekin?

Orain esapide egokia aukeratu eta osatu elkarrizketa:

- Sentitzen dut
- Aizu
- Ados

- Bai zera
- Mesedez
- Jakina

- Lur jota
- Pozik
- Hil zorian

Tomas Bizkaiko herri txiki batera joan da. Herri honetan dagoen baserri batera bisita bat egitera joan nahi du. Baina Tomasek egun txarra du, oso nekatuta dago eta taxi bat hartzea pentsatu du:

Tomas: mutiko! Ba al da taxirik herri honetan?

Herritarra: , Joxe Mariren taxia!

Tomas: Ba al dakizu Joxe Mari non dagoen?

Herritarra: Ba, zoritxarrez gaixorik dago eta herria taxirik gabe dugu.

Tomas: Ez da izango! nago eta taxia behar dut Axuri baserrira ailegatzeko!

Herritarra: Nahi baduzu motorrean eramango zaitut.

Tomas: Ba milesker, primeran joango naiz.

Herritarra: Ez horregatik eta lehenbailehen bizkortu!

Arian, arian edo zer zulatzen da

Egin dezagun gogoeta pixka bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hirunaka antzeko memorizazioa izan duzuen.

**ZER
IKASI
DUT?**

Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak